

**Zientzigintza, epistemologia eta baloreak:
Peter Berger-en *Soziologiarako Gonbitea*-ren
gaurkotasunaz**

Mikel Olazarán

Laburpena: Duela gutxi *Invitation to Sociology. A Humanistic Perspective* liburua euskarara itzuli dela eta, artikulua honetan Peter L. Berger-en ekarpen horren gaurkotasunari buruzko analisi kritikoa egiten da. Horretarako liburu horretan hiru momentu (hiru proposamen edo ekarpen multzo) berezten dira. Lehenengo atala osatzen duen sarreraren ondoren, artikulua honen bigarren atalean Berger-en proposamenen arabera soziologia egin ahal izateko beharrezkoa den jarrera aztertzen da (lehenengo momentua). Hirugarren atalean gizarte zientziaren kontzeptu eta printzipio nagusiei heltzen zaie, bere zientzi ihardueran soziologoak aurkitzen dituen arazo eta kuestio praktikoak ahaztu gabe (bigarren momentua). Ondoren, laugarren atalean, liburuan zehar maiz izkutuko eragina duen eta bukaera aldean agerian azaleratzen den gai edo kuestio epistemologiko bati buruz, zientzia sozialaren eta balioen arteko tentsio eta erlazioen kuestioari buruz hain zuzen, Berger-ek egiten dituen ekarpenak (hirugarren momentua) hartzen dira aztergai. Bukatzeko, bostgarren atalean, izkutuan nahiz agerian Berger-en lan honetan zehar —eta soziologian orohar— planteiatzen diren epistemologi arazorik garrantzitsuenetako batzuk gainditu ahal izateko zenbait proposamen egiten dira.

Resumen: Con motivo de la reciente traducción del libro *Invitation to Sociology. A Humanistic Perspective* al euskera, en este artículo se analiza críticamente la actualidad de esta aportación de Peter L. Berger. Para ello se distinguen tres momentos (o tres bloques de cuestiones y propuestas) dentro de dicha obra. Tras una primera sección introductoria, en la segunda sección de este artículo se analizan las propuestas de Berger acerca de la actitud necesaria para hacer sociología (primer momento). En la tercera sección la atención se centra en los conceptos y principios principales de la ciencia social, sin olvidar las cuestiones y problemas prácticos que el sociólogo encuentra en su actividad científica (segundo momento). Posteriormente, en la cuarta sección, se analiza la contribución de Berger a una cuestión que permanece latente durante gran parte de su libro y que emerge explícitamente al final: la tensión entre ciencia social y juicios de valor (tercer momento). Finalmente, en la sección quinta se elaboran unas propuestas para la superación de algunos de los problemas epistemológicos más importantes que se plantean (implícita o explícitamente) en esta obra de Berger y en la sociología en general.

1. Sarrera

Soziologiako ikasketak dagoeneko Euskal Herriko hiru unibertsitate-tan eskeintzen badira ere (Deustuko Unibertsitatean, Euskal Herriko Unibertsitatean eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan hain zuzen), orain arte oso materiale gutxi euskaratu da zientzi disziplina honetan. «Marxistak gineneko garaietan» (nolabait esateko) itzulitako testuak eta idatzitako lanak (batipat marxismoaz edo marxismoaren eta abertzaletasunaren arteko erlazioetaz) alde batera uzten badira, oso baliapide eskasak ditu alde horretatik euskal soziologiak¹. Jokin Apalategiren (1989) *Soziologia Orokorra* izena duen lana, laister Euskal Herriko Unibertsitateko Argita-rapen Zenbitzuak argitaratuko duen Paul B. Horton eta Chester L. Hunt-en *Soziologia* testuliburu klasikoa, eta bakarren bat gehiago, horiexek dira euskaraz dauden soziologiazko materiale guztiak².

Honelako eskasia egoera batean liburuak eta lanak itzultzeko eraba-kiak ongi pentsatu eta neurtu behar dira, eta itzulpenerako baliapide urriak benetan garrantzitsuak eta zentralak diren lanetan erabili behar dira. Gauzak honela, Peter L. Berger-ek bere *Soziologiarako Gonbitea* (Berger, [1963]1992) luzatu zigunetik hogeita hamar urte pasatu diren honetan, bakarren batek honako galdera hau egin liezaioke bere buruari: «baina, merezi al zuen honelako liburu "zahar" bat itzultzea?» Errezen-sio (kritiko eta luze) moduko idazlan honetan galdera horri eman beha-rrerako erantzuna zalantzarik gabe baiezkoa dela frogatu nahi nuke. *Gonbi-tea* lehenengo aldiz argitaratu zenetik hiru hamarkada pasatu diren arren,

¹ Urte haietan itzulitako testuen adibide gisa, honako hauek aipa litezke: Karl MARX-en (1973) *Louis Bonaparteren «Brumaire»aren hemezortzia*, Mario Onaindiak euskaratua, K. MARX eta Friedrich ENGELS-en (1980) *Alderdi Komunistaren Manifestua*, Xabier Kintanäk itzuli zuena, edota ENGELS-en (1975) *Sozialismoaren aurrerabidea utopiatik zientziara* eta Ludwig Feuerbach eta aleman filsofiaklasikoaren *amaiera*. Marxismoaren eta abertzaletasunaren arteko erlazioaz idatzitako lanen artean Paulo IZTUETA eta Jokin Apalategiren (1974) *Marxismoa eta nazional arazoa Euskal Herrian* aipa liteke. 1970ko hamarkada horretan bertan ere Andoni SAGARNAK (1970) soziologiarako sarrera bat argitaratu zuen (*Soziologiaren hastapenak* izena zuena). Beranduago argitaratutako lanen artean Marxen obrari buruz Jon SUDUPEK (1984) egin zuen analisi lan serioa aipagarria iruditzen zait (*Karl Marx. Teoria eta Politika*).

² Honekin ez dut esan nahi euskal soziologia garatzekotan denok itzulpengintzari ekin behar diogunik. Itzulpengintzan *gehiagizko* pisua jartzea euskal soziologiaren ahuleziaren eta maita-potasunaren seinalea izango litzateke. Gaur egun zientzi ezagutza produzitu nahi bada (eta, hori baino lehenago, ikerketa arlo batean orain arte zer egin den jakin nahi bada), gehienetan ingele-sa erabili behar da. Hala ere, eta batez ere irakaskuntzarako (soziologia euskaraz egingo duten profesionalak formatzeko), behar-beharrezkoa da funtsezko testuak (klasikoak zein egungoak) itzultzea.

nere ustez, lan horren gaurkotasanak bere horretan dirau oso-osorik. Denboraren frogagorria gainditu egin du Berger-en liburu eta, etengabe-ko eta abiadura haundiko aldaketa eta berrikuntza garai honetan (bai zientzīgintzan eta bai gizarteko beste arloetan), ekarpen *klasikoa* izatera iristea lortu du, gaurko zientzīgintzan oso ekarpen gutxi lortzen dutena. Ez da lorpen makala.

Gainera, *Soziologiarako Gonbitea* ez da sarrera-liburu konbentzionala. Berger ez da gelditzen (ez du gelditu nahi) errealtate soziala aztertze-ko beharrezko diren kontzeptu eta printzipio nagusien azalpenean eta azter-ketan; eta haruntzago joan nahi du. Gizarte errealtateaz eta prozesuetaz ohartzeko zein errealtate eta prozesu horiek zientifikoki interpretatzeko beharrezkoak diren kontzeptuak, kategoriak, printzipioak eta, orohar, teori eta metodologi tresnak (soziologoaren «herraminta kaxa») aurkeztu eta aztertzeaz gain, soziologia egiteko behar den *jarrera* ere aztertzen du Berger-ek, zientzi iharduera teoriko eta enpirikoan soziologoak aurkitzen dituen arazo praktikoei (baloreekin erlazio naturiko arazoei alegia) bete-betean helduz. Honetan, geroxeago ikusiko dugun bezala, soziologo ipa-rramerikar honen lanak badu, nolabait ere, Max Weber-ek 1919.ean ida-tzitako *El político y el científico* (WEBER, 1981) entseiu ospetsuaren antza edo kutsua.

Nere ustez, liburuaren ekarpena hiru zati edo momentu nagusitan ba-natu daiteke³. Lehenengo momentuak liburuaren aurreneko hiru kapitulu-ak bilduko litzuzke (1. kap.: *Soziologia, bakarkako denborapasa*; 2. kap.: *Soziologia, kontzientzia era bat*; 3. kap.: *Digresioa: alternazioa eta bio-grafia*), eta bertan soziologia egiteko beharrezkoa den *jarrera* (bokazio-jarrera, esan liteke, Max Weber-en terminua erabiliz) aztertzen du egileak. Bigarren zatian laugarren, bostgarren eta seigarren kapituluak sartuko li-rateke (4. kap.: *Gizakia gizartearen baitan*, 5. kap.: *Gizartea gizakiaren baitan*, 6. kap.: *Ikusmolde soziologikoa: gizartea antzerki*), eta hemen egi-

³ Momentu hauen mugak eta kapitulu mugak ez dira berberak. Momentu jakin bat kapitulu sorta batean biltzen dela diodanean hauxe esan nahi dut, momentu horretako osagai gehienak edo nagusiak kapitulu sorta horretan aurki daitezkeela. Baina honek ez du esan nahi osagai horietako batzuk beste kapitulu batean aurki ez daitezkeelarik, edo kapitulu multzo horretan beste kuestio-rik ukitzen ez denik. Idazlan honetan BERGER-ek *Soziologiarako Gonbitean* egiten dituen ekarpe-nen *analisi* egiten da eta beraz, horrelakoetan ohi denez, lehen-lehenik liburuaren osagai naga-siak bereizten dira (osagai horiek interpretatuz eta ebaluatuz, jakina) eta, ondoren, osagai horiek beste-erreferentzi marko batean kokatu eta berrinterpretatzen dira. Hau guztia dela eta, argi geidi-tzen da, beraz, ez dudala beti kuestioak aztertze-ko egileak berak darabilen ordena errespetatuko.

leak soziologiaren kontzeptu eta printzipio nagusiak azaltzen ditu, hasieran gizarte errealtatearen sendotasuna erakutsiz baina, bukaera aldera, erakuntza sozialek dituzten zirrikitu eta pitzadurei ere begiraturaz. Hirugarren eta azken zatiak, bere baitan azken bi kapituluak (7. kap.: *Digresioa: makiabelismo soziologikoa eta etika*; 8. kap.: *Soziologia, disziplina humanistiko bat*) biltzen dituenak, liburu guztian zehar lurrazpian izkutatutik egon den kuestioa azaleratzen du, hain zuzen ere zientzia sozialaren eta baloreen arteko erlazioa eta tentsioa. Berger-ek honako galdera honi erantzuten saiatzen da: zer esan daiteke baloreetaz soziologiatik gehiegi aldendu gabe?

Momentu hauek banan-banan aztertzeari ekin baino lehenago, bi hitz esan nahi nituzke Julian Maiaren itzulpenari buruz (honetaz ezer gutxi esan nahi nuke, idazteko estiloak oso gauza pertsonala eta subjektiboa direlako). Itzulpena ongi dago orohar, erderazkoa (Mexicoko Limusa argitaletxeak egin zuena) baino askoz ere hobeki, azken hau akatsez beteta baitago. Kritika aldetik, gauza pare bat besterik ez nuke azpimarratu nahi. Batetik, esaldiak batzutan luzeegiak iruditzen zaizkit. Ondorioz, nere ustez, esaldi konposaketarako *ezén* eta antzeko juntagailuak gehiegitxo erabiltzen dira, honek zenbait pasartetan testua astunegia egin lezakeelarik. Berger-en jatorrizko testuaren ezaugarri nagusienetakoak bizitasuna eta plastikotasuna direla esango nuke: adibide interesgarri asko erabiltzen ditu eta honek bizitasunez betetzen du liburua. Gainera, bizitasun hau guztiz bat dator liburuaren helburuekin: irakurlea motibatu nahi du Berger-ek, soziologigintzara bultzatu, akademizismoaren itxurak eta «txorakeriak» (egileak berak lasai asko erabiliko lukeen terminu batez baliatuz) baztertera utziz eta soziologoak bere ihardueran aurkituko dituen arazo, xeblekeria, umore egoera eta ironiei bete-betean helduz. Esaldi luzeegiak erabiliz bizitasun hori pittin bat galtzeko arriskua egon daiteke itzulpenaren zenbait momentutan. Bestalde, aipatu nahi nuen bigarren gauza hauxe da, ez zaidala gehiegi gustatu itzultzaileak gertuko adibideak (Euskal Herrikoak, etab.) jatorrizko testuaren erdian sartu izana (horrelako gauzak oharretan egin behar dira, testutik erabat berezita, eta itzultzailearen oharra direla argi eta garbi nabarmenduz).

2. Gizarte zientziarako jarrera

Liburuaren lehenengo momentuan, soziologia definitzean, zientziaren eta balioen arteko erabateko haustura edo berezketatik abiatzen da Berger. Edozein gizarte fenomeno edo prozesuren aurrean, soziologoak

ondoko galdera hauek egiten ditu: zer ari da hemen jendea elkarrekin?, zein dira elkarrekiko haremanak?, nola antolatzen dira harreman horiek instituzioetan?, zein dira gizakiei eta instituzioei eragiten dieten ideia kolektiboak? (35. or.)⁴. Galdera horiei erantzuteko zientzi teoriak eta ikerketa metodoak erabiliko ditu zientzilari sozialak, tresna-horien bidez balioez aske den zientzi ezagutza haunditzea eta aurreratzea lortuko duelarik. Soziologiaren helburua ulerkuntza teorikoa da. Soziologia zientziaren eremuan kokatzen da. Ezagutza horren aplikagarritasun edo baliagarritasun praktikoa guztiz bestelako eremu bati dagokiola argi eta garbi esaten digu Berger-ek (beti ere liburuaren lehenbiziko momentuan gaudelarik). Gizarte funtzionamenduaz, kontsentsua-sorrerazten duten prozesuetaz edo jendea erabiltzeaz interesaturik dagoen edozein talde zein organizazioentzat erabilgarriak izan daitezke soziologiaren ekarpenak, zeinnahi direlarik ere beren asmoak, ageriko helburuak, izkutuko interesak edo justifikazio moralak.

Hortaz, Berger-en liburua Max Weber-ek lehenengo aldiz planteiatu zuen (eta geroztik iskanbila eta eztabaida franko sorrerazi dituen) zientzia sozialaren eta baloreen arteko berezketari zorrotzetik abiatzen da⁵. Gauza bat da zientzi ezagutza eta beste bat, erabat ezberdina, ezagutza horren aplikagarritasun praktikoa, hau da, bi erreferentzi marko horien artean erabateko haustura legoke. Bestela esateko, gauza bat da *arazo soziala* eta beste bat, guztiz ezberdina, *arazo soziologikoa*. Adibidez, organizazio batean (entrepresa, zerbitzu, administrazio, unibertsitate edota kuarterel batean, adibidez) bertako agintarien ikuspuntutik dauden «arazoak sozialak», askotan hierarkiako behe mailetak pertsonen portarerekin zerikusirik dutenak, ez dira nahitaez arazo soziologikoak. Entrepresa zuzendariak kezkatzen duten arazoak eta soziologoa kezkatzen dutenak ezberdinak izaten dira oso. Soziologoaren arazo nagusia honako hau esplikatzea eta ulertzea da: sistema sozial horren bane funtzionamendua (organizazio horren elementuak; elementu horien antolaketa eta estratifikazioa —boterearen eta statusaren arabera—; elementu horien arteko komunikazio —eta inkomunikazio— sare, arau eta ereduak; antolaketa hori bere horretan sostengatzen duten mekanismoak

⁴ Hemendik aurrera, orrialdeak hesterik gabe azaltzen direnean, egilearen izena eta liburuaren urtea agertu gabe alegia, Peter L. BERGER-en *Soziologiarako Gontzetaz* (BERGER, [1963]1992) ari naizela suposatuko da.

⁵ Kuestio honen nondik norakoaz eta bilakaeraz interesaturik dagoenak honako liburuetara jo lezake besteak beste: LAMO DE ESPINOSA (1975), BELTRAN (1979).

eta ideiak, etab), eta sistema horrek gizarte ingurune zabalagoarekin dituen erlazioak.

«Kapatazaren "arazoa", hots, bere ardurapeko gizonei efizientzia handiagoz lan egin eraztea; edo ofizial militararena, alegia, bere tropek etsaiari gogotsuago eraso egin diezaiotela: horiek soziologoarentzat ez dira inola ere arazo (kontutan hartu gabe oraingoz seguraski enpresak edo armadak diola soziologoari ordaindu "arazo" horiek aztertzea). Arazo soziologikoa beti, delako afera horretan interakzio sozialean ari diren faktoreen ulertuntza da. Hala, arazo soziologiko behinena ez da jakitea zergatik gauza batzuk "gaizki dabiltzan" eszena sozialeko agintarien eta administrazioaren ikuspuntutik, baizik eta, lehenbiziko, nola dabilen sistema osoa, zein diren bere presuposizioak, eta nolako baliabidez irauten duen sistema horrek hausturarik gabe. Funtsezko arazo soziologikoa ez da delinkuentzia, legea baizik; ez dibortzioa, ezkontza baizik, ez da bereizkeria arraziala, arrazaz definituriko estratifikazioa baizik; ez iraultza ere, gobernua baizik» (54. or.)⁶.

Soziologia baloreez aske dela esan dugu aresti honetan, baina baieztapen hau ez da guztiz zuzena, zeren eta zientzīgintza sozialean aritzean soziologoak balore batzuk hartzen baititu gidaritzat, hain zuzen ere zientzi-prozedurari dagozkionak. Berger-ek (201. or.) honako hauek aipatzen ditu besteak beste: apaltasuna ikerketaren objektuaren aberastasunaren aurrean, ulerkuntzaren bilaketan nor bere burua ezabatzeko joera, zuzentasuna eta zehaztasuna metodoetan, oneski lortutako aurkikuntzekiko begirunea, objektibotasuna, norberaren teoriak errebisatzeko eta abandotzeko prestutasuna eta balore hauek konpartitzen dituztenekiko elkartasuna. Nolanahi ere, jakin badaki Berger-ek Max Weber-en eta Robert Merton-en kutsua duen balio sorta edo *ethos* honen eta benetako zientzi praktikaren artean alde handi samarra egon daitekeela (goian aipatu dugun momentuen ordena errespetatzearen, kuestio hau geroagorako utzi dugu, hain zuzen azkeneko bi atalatarako).

⁶ Bere baitako ordena mantentzeko gizarte sistema batek darabilzkien mekanismoen azterketan soziologo funtzionalistek ekarpen garrantzitsuak egin dituzte. Arrazoi ideologikoak zirela eta (marxismoaren eta komunismoaren gorakadari aurre egin nahian, hain zuzen), horietako batzuk ordena sozialarekiko halako «obsesioa» (nolabait esateko) izaten zutela esan liteke. Dena den, dudarik gabe, barenko zein kanpoko tentsioei aurre eginez sistema baten oreka mantentzen duten prozesu eta mekanismoak soziologiaren ikerketa objekturik garrantzitsuenetakoak dira. Soziologiako tradizio ezberdinak (eta batzutan bateraezintzat jotzen direnak) bat etor daitezke puntu honen inguruan. Adibidez, Marx-ek ideologiaz egin zuen analisisa, batetik, eta aipatu oreka mantentzeko funtzionalistotik egin diren hainbat ekarpen gizarte sistemei buruzko teoria bakar batean sar litezke.

Orain artean soziologoaz egin dugun deskripzioa hotz samarra da: soziologoa espioia da, begiluze profesionala, bere teori eta metodologi tresnekin gizarte fenomenoak edo egoerak (non jendeak bere ekintzak elkarrekiko eta elkarrengana zuzentzen dituen, Weber-en definizioa erabiliz) bilatu, isolatu eta objektiboki aztertzen dituena. Baina, Berger-ek kontzientzia soziologikoaren dimentsioak aztertzean erakusten duen bezala, gauzak berehalaxe konplikatu eta *berotzen* dira (diru gehiegi ez du izango beharbada, baina soziologoa ez da aspertuko!). Izan ere, hauxe baita soziologiaren lehenengo printzipioa: *gauzak ez dira diruditena* (38. or.). Eraikuntza sozialen (instituzioak, jokamoldeak, kulturak, egiturak, etab.) definizio eta interpretazio ofizialen aurrekaldeen atzean begiratu beharra dago fenomeno sozialen osotasunaz jabetzeko eta, horregatik, aurkikuntza gozogabeak sahistea gustoko duen jendeak hobe luke soziologiatik urrun mantenduko balitz. Lehenengo adibidearekin jarraitzeagatik, organizazioetan (entrepresetan, ospitaleetan, unibertsitateetan) organigrama ofizialaren ondoan (azpian edo gainean) beti ere ikusteko zailagoak diren sare ezformalak egongo dira, beren leialtasun, interes, aurreiritzi, erretorika, ezinikusit, portaera kode eta joku taktikoekin. Fenomeno sozialak beren osotasunean ulertuko baditu, soziologoak gizarte bizitzaren alderdi ez-errespetagarriak eta ezofizialak aztertu beharko ditu. Instituzioetan, organizazioetan edo, orohar, interakzio sozialeko edozein eremutan nagusi diren interpretazio ofizialek edo ideologiek sarritan maskaratu egiten dute errealitate soziala (58-59. or.), eta hortaz soziologoak ezin izango ditu erabat errespetatu. Definizio horiek gizarte eremu baten antolamendua naturala edo aldaezina bailitzen aurkezten badigute ere (edo aurkezteko joera badute ere), soziologoak beti ere erlatibizaziora joko du, beti ere kultura edo azpikultura batean normalizat ematen dena beste batean desbideraketatzat jo daitekeela ahaztu gabe. Hauexek dira, laburbilduz, kontzientzia soziologikoaren lau dimentsioak: maskaragabetzeko joera, errespetugabetasuna, erlatibizatzeko zaletasuna eta, azkenik, kosmopolitismoa (beste bizimodu eta pentsamoldeekiko irekitasuna).

Kontzientzia soziologikoaren dimentsioak aztertu eta gero, arestian soziologoaren zientzi iharduera deskribatzean aipatzen genuen hoztasuna desageratu egin da dagoeneko. Edo, hobeki esateko, *hoztasun* bat egon badago soziologoaren jarreran, hain zuzen ere definizio eta interpretazio ofizialen *berotasunetik* (ezarritako botereenak edo horiekin lehiari diren kontrabotereenak) ihes egiten eta haruntzago joaten saiatzen dena. Soziologia egiteko beharrezkoa den jarreraren ezaugarri nagusia, aipatutako lau dimentsioak nolabait ere bere baitan bilduko lituzkeena, hauxe izango litza-

teke Berger-entzat: *eszeptizismo osasungarria*. Soziologoak «eta hori, nork dio?» galdera gogaikarria tartekatuko du interesen arteko gatazka erretoriko eta taktikoetan, edo mundu ikuskeren arteko eztabaida beroetan.

«Elkarren kontrako lehia ari diren mundu ikuskerezko oihanean bidea bilatzen ari den jendeari, soziologoak oso sinple (eta beraz guztiz baliagarri) den zerbait eskain diezaiolke. Hauxe, hain zuzen: mundu ikuskera guzti-guztiak oinarri soziala dutela, edo bestela esateko, eraikuntza sozialak direla. Bestela azaltzearen, mundu ikuskera bakoitza konspirazio bat da. Eta konspiratzaileak, berriz, egoera sozial jakin bat eraikitzen dutenak dira, egoera horretan mundu-ikuskerak partikular bat jakintzat ematen delarik». (84. or.)

3. Gizarte errealtatearen sendotasuna

Liburuaren bigarren momentuan Berger-ek soziologiaren kontzeptu nagusiak aztertzen ditu, hala nola kontrol soziala, estratifikazioa, instituzioa eta legitimazioa. Laugarren eta bostgarren kapituluak (*Gizakia gizartearen baitan* eta *Gizartea gizakiaren baitan*) irakurrita determinismo sozialaren indarrak jabetuko gara eta, gizakiaren askatasunak —edo behintzat giza jokabidearen duintasunak— kezkatzen bagaitu, litekeena da, bukaera aldera, gure aldarteak pittin bat behera egitea eta Berger-ek «depresio soziologikoa» deitzen duen egoeran poliki-poliki erortzea.

Kontrol soziala da gizarte interakzioaren ezaugarri nagusia, errealtate soziala hor kanpoan dagoela eta benetan existitzen dela erakusten digun froga ukalezina (E. Durkheim-ek gertakari sozialak gauzak direla esan ohi zuen honetaz ari zenean). Ez dago kontrol sozialik gabeko gizarte sistemarik. Instituzionalizatutako jokabide ildoetatik desbideratzen diren kide egoskorrak atzera marraz barrura ekartzeko sistema sozial batek erabiltzen dituen mekanismo eta bitartekoek osatzen dute kontrol soziala (irrigarri uztetik, gaizki esaka arizetik edo iraintzetik hasi eta heriotz zigorreraino). Kontrol-sozialeko zirkulu zentrokide askoren erdian dago gizakia. Zirkulu haundiagoetatik txikiagoetara joanez, honako hauek aipa litezke: instituzio ekonomiko, politiko eta juridikoak, moralitatea eta ohitura onak, kultura, lanaren esparrua⁷, bestelako

⁷ Determinismo ekonomikoan erori-gabe, lanaren garrantzia argi eta garbi azpimarratzen du Berger-ek. Edozein lanetan, jokaera kode bat egongo da, gaitasun tekniko eta prestakuntza bezain funtsezkoa izango dena. Bestalde, sarritan lanak erabakitzen du zer egin dezakegun gaine-

elkarte eta asoziazioak eta, azkenik, bizitza pribatua (familia eta adiskideak) (96. or.).

«Norbanako bat hasten bada pentsatzen banaka-banaka bera dagoen lekutik zenbat jenderi gusto eman behar dion (zerga biltzailearekin hasi eta amaginarrebarekin amaituz), eta horren ondorioz sentituko balu inpresioa gizarte guztia bizkar gainean jarri zaiola, hobe luke ez balu inpresio hori momentu bateko burugaltze neurotikotzat hartuko. Soziologoak, nolahi ere, uste hori indartu egingen dio, beste aholkulari batzuk lasai egoteko eta kasurik ere ez egiteko esaten badiote ere». (100. or.)

Baldintzatzen eta kontrolatzen gaituzten horrenbeste botere zirkulu gainean ditugarrik, sufritzen duguna baino gehiago sufritzen ez badugu arrazoi honexegatik da, gizarteak gutaz espero duen huraxe nahi izaten dugulako geuk ere gehienetan, arauak obeditu nahi izaten ditugulako alegia (118. or.). Berger-ek rol teoria, jakintzaren soziologia eta erreferentzi taldeen teoria erabiltzen ditu honako hau erakusteko: portaera ezezik, izaera ere taituzten digula kokagune sozialak. Izan ere, barneraketa baita modu bakarra esplikatzeko zergatik, gizarte batean, kanpotiko kontrol gehienek, gehienetan eta gehienentzat, funtzionatu egiten duten. «*Presondegiaren*» paretak hor zeuden gu eszenara etorri baino lehenago, baina geuk birrerakitzen ditugu, geure laguntzaz (akordioz) gaude gaitibu» (148. or.). Adibide politak erabiltzen ditu Berger-ek gizarte arau edo rolen barneraketaren ideia aditzera emateko.

«Har dezagun adibide bat, militar bat berriki ofizial izendatua izan dena ... Eskala maila apalagoan dagoenak egiten duen agur militar bakoitza menpekotasun ekintza bat da ... Egin eta itzultzen den agur bakoitzarekin (egoera edo status berria goستن duten beste hamaika egite zeremonialekin batera, jakina), gure gizona egoera berrian gotortu egiten da. Ez da ofizial bezala aritzen dela, sentitu egiten da ofizial. Joanak dira ezerosotasunak, barkamen eskeko jarrerak, eta "adiskide nauzu"-kako irribarrea. Inoiz soldadu arrunt batek agurra behar den berotasunaz egingen ez balio, gure ofizialak ez du soilik arau militarren haustea zigortuko: eginahal guzti-guztiñ joko du bere kosmosean ezarriko ordenuaren kontrako iraina berdindu eta garbitzera». (121-122. or.)

rako bizi atal gehienetan, hau da, askotan lanaren araberako estratifikazioa izango da status estratifikaziorik garrantzitsuena. Jakina, lanaren esparrutik kanpo, badaude beste estratifikazio eta diferentziazio mota batzuk gero eta garrantzitsuagoak direnak: bizitza estiloak, kultur praktikak, etab.

Rolak barneratu eta gero oharkabean jokatzen ditu gizakiak. Oso zaila da mundu honetan itxurak egitea: zertan ari zaren, halakoxea egiten zara eskuarki (122. or.). Muturreko adibideak erabiltzen ditu Berger-ek ideia hau ilustratzeko. Ekimen librearen ideologiaren izenean elkarte anonimo haundi batzuen monopolio praktikak estaltzen dituen enpresaria, edo ideologia marxistaren izenean alderdi komunistaren aparatua-ren tirania babesten duen alderdiaren funtzionaria, horrelako pertsonak gehienetan zintzoki eta benetan ari dira; berariaz gezurretan aritzeko ahal-egin morala eta autokontrol psikologikoa gehiegizkoak dira jende gehienarentzat (konspirazioaren teoria gehienek gehiegi baloratzen dute konspiratzaileen adimen ahalmena) (138. or.).

Sarrera-liburu honetan, honelakoetan pegagogi arrazoiengatik egin ohienez, gizakiarengandik hasi eta poliki-poliki giza jokabidea baldintzatzen dituzten kontrol sozialeko zirkulu zentrokideak (gero eta zabala-goak direnak) aztertzen ditu Berger-ek. Horregatik, honez gero, bostgarren kapituluaren bukaeran gaudela, halako «depresio soziologiko» batean erortzeko zorian egongo gara ziurrenik. Izan ere, gizarte zientzien arabera, giza mundua (gizabanako baten kontzientzia subjektiboan libre bezala agertzen diren ekintzak barne) kausa-sistema bat besterik ez baita. Fenomeno bat ezin baldin bada kausa mota batekin esplikatuta (ad.: kausa politikoak), beste batekin saiatu beharko dugu (ad.: kausa ekonomikoekin) edota, jakina, kausa mota bat baino gehiago batera hartuz. Duda-mudatan ibili gabe, kausen araberrako esplikazio ereduaren aldeko aukera egiten du Peter Berger-ek. Beraz, Weber-engandik datorren gizarte zientzi tradizioari jarraituz gizarte fenomenoen alderdi subjektiboaren (aktoreen errepresentazioak, helburuak, interesak, sinesmenak, balio moralak, etab.) garrantzia defendatzen badu ere, Berger-entzat honek ez dakar berarekin kausalitatean oinarritutako esplikazioen zokoratzea (azken atalean kuestio garrantzitsu honi buruzko gogoeta batzuk egingo ditut).

Baina itzul gaitzean gizarte errealitatearen sendotasunaren kuestiora. Arestian esan bezala, egitura sozialetaz, kontrol sozialaz, gizarte harreman eta estratifikazioetaz eta giza portaeraren determinazio sozialaz horrenbeste hitz egin ondoren, honez gero liburuaren irakurle patzientziaduna ziurrenik «depresio soziologikoan» erortzeko zorian egongo dela pentsatzen du Berger-ek. Gauzak honela, puntu honetan galdera bat egingen dio egileak bere buruari: ba al dago arrazoirik (edo, bestela esateko, «antidotarik») depresio egoera horretan ez erortzeko? Galdera honi bi erantzun mota eman dakizkioke, bata soziologiatik bertatik eta bestea gi-

zarte zientzien metodologia eta epistemologiatik. Atal hau bukatzeko lehenbiziko erantzun motari helduko diogu, bigarrena hurrengo atalerako utziz.

Zientzīgintza sozialetik atera gabe determinismo sozialaren «depresioan» ez erortzeko arrazoiak egon badaude. Ikuspuntu honetatik ezin hitz egin daiteke askatasuna bezalako baloretaz (horrek kausalitatean oinarritutako zientzi esplikazioaren eremutik ateratzea ekarriko bailuke), baina ondoko baieztapen hau egin daiteke: kontrol sozialak ez dira hutsezinak; gizarte sistemak, egiturak eta arauak ez dira betierekoak edo aldaezinak. Eraikuntza sozialak dira, lehen esan dugun bezala, eta beren horretan iraun ahal izateko kontrolpean daudenen etengabeko berrespina behar da. Berrespen hori ukatu egin liteke, zaila bada ere eta ukatzaileei koste haundi samarrak (askotan oso ezatseginak) ekarriko badizkie ere. Bestela esateko: kontrol sozialak oso indar haundia duen arren, gizaki bakoitza (mundu sozial bateko partaide bakoitza) ofizialki definitutako gizarte antolaketarentzat balizko mehatxu bat izan liteke.

Berrespenari uko egiteko hiru modu nagusi aipatzen ditu Berger-ek: al-daketa (egitura batekiko ideia mailako bane desatxekitze pertsonaletik hasi eta erabateko eraldaketa edo sabotaiaraino) batetik, bereiztea edo desatxekitzea bestetik (kontragizarte eta azpikultura batean bizitzea, matematikarien azpikulturaren kasu) eta, azkenik, rolen manipulazioa (egiturak prozedura ofizialetan aurrikusi ez diren moduetaz erabiltzea; adibidez *bai jauna* esan ugazabari baina lepoa noiz bihurtuko zai egotea) (ikus 157. or. tik aurrera). Ikuspuntu gizazale batetik (eta hau esatean *zientziari buruzko* diskurtso batean kokatzen gara, zientzīgintzatik kanpo alegia, gerorago ikusiko dugun bezala), rolaerikiko distantzia hau, edo jokabide bikoiztasun hau, batzuetan giza duintasunari eusteko modu bakarra izan daitekeela esaten digu Berger-ek. Hala ere, eta gizarte zientzīgintzaren eremutik atera gabe, ez da ahaztu behar aktore sozialek berarek erabiltzen dituztela taktika eta defentsa-mekanismo guzti hauek interakzio sozialean, eta hortaz soziologoaren ikerketa objektuaren barnean daudela.

Gauzak honela, dagoeneko gizarte errealitatearen sendotasuna eta gogortasuna pittin bat arindu egin da, «depresio» soziologikoaren kontrako antidoto batzuk aurkitu egin ditugu, eta gainera «merke» samarrak (nolabait esateko), geure etxetik bertatik (zientzia sozialetik alegia) atera gabe eskura ditzakegunak. Gizartea gartzela eta txontxongilo antzerkiaren antzera ikustetik aktore bizien eszenatoki gisa ikustera pasa gara.

«Batetik, enpresariak kanpotik ezartzen dituen kontrolek aktorea bortxatu egiten dute, eta bestetik, rolak berak barrutik ezartzen dituen kontrolek ere aktorea behartu egiten dute. Hala ere, aktoreak badu aukera: bere papera osoro sinetsirik, edo "distantziarekin" ("erreserbarekin" alegia); eta azken-azken batean jokatzeari erabat uko ere egiten ahal dio» (167-168. or.)

Gizarte errealitatea sendoa da oso, baina ez hutsezina edo aldaezina. Aktore sozialek beraiek ere errealitate sozialaren kilikolotasunaz ederki jabetzen dira batzutan, beren erretorika, taktika eta interes jokuetan horretaz baliatzen direlarik.

4. Aitzakiarik ez: soziologia eta «ikusmolde gizazalea»

Errezensio-entseiu luze moduko artikulua honen hasieran Peter Berger-en *Soziologiarako Gonbitea* soziologiarako sarrera konbentzionala ez dela esan dut. Izan ere, soziologiaren oinarriko kontzeptu eta printzipioak aztertzeaz gain, egile honek badu bestelako helburu bat; hain zuzen ere soziologia egiteko zer nolako *jarrera* edo *bokazioa* behar den azaltzea. Horregatik, askotan zientzigintzaren eta balioen arteko tentsio ezerosoan mugituko da iparramerikar soziologoa. Atal honetan Berger-en *Gonbitearen* hirugarren momentua (zientziaren eta balioen arteko erlazioei buruzkoa) aztertzeari ekingo diot. Soziologoaren jarreraren azken ezaugarrietaraino joateko asmoz, liburuaren bukaera aldera (7. kapitulutik aurrera hain zuzen), zientzigintzaren eremua utzita (baina aldiberean eremu horretatik ahalik eta gertuen egon nahi duelarik, berehalaxe ikusiko dugunez) baloreei buruzko eztabaidaren esparrura pasako da egilea.

Baina Berger-ek kuestio honetaz dioena aztertzen hasi baino lehen, ohartxo labur bat egin nahi nuke, guzti honen azpian dagoen arrazoikotasun praktikoa edo sozialaren auziaz. Hemen galdera klasikoa hauxe izango litzateke: balioei buruzko diskurtsoa edo eztabaida zientzigintzatik (eta beraz zientzi arrazoikotasun edo arrazionalitatetik) kanpo kokatzen dela baieztatzeak esparru hori arrazoikotasun *orotik* kanpo gelditzen dela esan nahi al du?, hitz-egin al daiteke arrazoikotasun sozialaz? Eztabaida honen jatorriak arrazoimen teorikoaren eta arrazoimen praktikokoaren artean Kant-ek egin zuen berezketaraino doa. Kant-ek juizio moralen autonomian, objektibotasunean eta unibertsaltasunean sinisten zuten, baina XIX. mendetik aurrera ikuspegi honi buruzko zalantzak ugai-

tzen joan ziren (alde honetatik pentsalaritik aipagarriena Nietzsche izanik). Weber-en lanean kuestio hauek —bai Kant-en berezketa zorrotzak eta baita balioen arrazoikotasun funtsei buruzko zalantzak ere— eragin handia izan zuten. Gizarte zientziaren eta balioen arteko erlazio eta tentsioari buruzko galdera klasiko hau garrantzitsua da oso. Hala ere, egon badago, nere ustetan behinik behin, kuestio hori birplanteiatzeko modu berritzaile eta emankor bat, honako galdera honi atxekituko litzaiokeena: baina zientzi arrazoikotasun bera ere, ez al da arrazoikotasun soziala? Eta hau bi arrazoientzatik galdetzen da. Alde batetik, zientzigintza aritzean balio-sistema baten gidaritzapean lan egiten dutelako zientzilariek; eta, bestetik, zientzi ezagutzaren produkzio eta ebaluazio prozesuak sozialak direlako. Zientziaren eta, ororhar, ezagutzaren soziologiarekin zerikusi handia duen galdera honi geroxeago, hurrengo atalean hain zuzen, erantzungo diot.

Zientzigintzaren balore-sistemari dagozkion arau eta ereduaren arabera (objektibotasuna, etab., ikus lan honen lehenengo atala) jokatzeko duenean, soziologoa neurri on batean «mertzenerari» bat izan daitekeela, «zapalkuntzaren laguntzailea» (184. or.) alegia, dio Berger-ek. Adibide gisa ondoko aipu hau irakur daiteke.

«Entrepresa zuzendaritzan, harreman publikoetan edo publizitate munduan soziologia nola erabiltzen den ikustea ez da oso ereduagari etikaren aldetik». (ikus 185-186. or.)

Baina zientzigintzatik (edo zientzigintzaren balio-sistematik, zehatzago esateko) bestelako balioei buruzko eztabaidarako urratsa ematean Berger-ek ez du gizarte zientziatik gehiegi aldentu nahi, eta hauxe defenditzen du: gizarte errealitatearen kilikolotasuna (soziologiak zientifikoki frogatzen duena) abiapuntutzat hartuta, giza duintasunaren aldeko jarrera etikora pasa daitekeela (zientzigintzaren mugan zientzilarik karteta utzita eta hiritar hutsaren nortasun agiria hartuta, jakina).

Giza duintasunean oinarria duen ikusmolde gizazalea honelaxe definitzen du Berger-ek: beren araza, sexualitatea edo edozein ezaugarri sozial (adibidez boterearen edo statusaren arabera) estratifikazio-sistema batean gizaki batek betetzen duen lekua dela kausa-gizaki batzuk duintasunik ezara kondenatzen dituzten tribunalen aurrean, humanismo honek protesta, jarkipena eta errebelamendua agertuko du (195. or.). Inork baino hobeki ezagutzen du soziologoak (edo ezagutu beharko-luke behintzat)

egitura sozialek sorrerazten duten giza sufrimendua eta, horregatik, zientzilari karneta utzi eta hiritar nortasun agiria hartzen duenean (gizarte sistema baten partaide bat gehiago izatera pasatzen denean alegia) pertsona hori «txuskeroa» izatea harrigarri samarra izango litzateke (baina ez da, inolaz ere, ezinezkoa, kasuak egon badaude, eta nabarmenak)⁸. Harrigarria litzateke, bestela esateko, soziologia ikasi duen pertsona batek status ontologikoa ematea gizaki bati egozten zaizkion etiketa sozialei (189. or.).

«Soziologiak ulertarazten digu ezen "beltz" bat, gizarteak hala izendaturiko pertsona bat dela; nola halako izendapen batek presio batzu sortzen dituen, pertsona hura benetan sar dadin egotzi zaion irudian; baina baita adierazten digu presio horiek arbitrarioak direla, ezosoak. Antirrazistak ere, sarritan harrapatuak gertatzen dira fikzio sozialetan, diferentzia bakarra izanik fikzio horiei aurkako balioak eranstean dizkietela. Nortasun negatiboa egotzi zaieneko jendeek oso jaidura handia izaten dute beraien aurkakoek asmatutako kategoriak onartzeko, aldaketa xume hau besterik egin gabe: delako nortasunari atxekiriko minus zeinua, plus zeinu bihurtuz. Lehenengo lotsaren tokian, orain "arrazza harrotasuna" ezaritzen da, eta honela beltzen arrazakeria eraikitzen da, zurien prototipoaren islada besterik ez dena». (190. or.)

Sozialki egotziriko nortasun etiketa guztiak halako broma aire piska batekin, sobera sinetsi gabe, hartzea gomendatzen digu Berger-ek bere ikuspuntu gizazale honetatik (191. or.). Gainera, giza duintasunaren aurkako ekintzak egitura sozialen babesean burutzen dituztenei (*beren rolak edo posizioak horrela agintzen dielako* bezalako justifikazioak erabiliz), hauxe esan beharko lekieke ikuspuntu honetatik, hori aitzakia (gaitzuste edo «fede txarra», askatasunari aurpegi eman nahi ez izatea alegia) besterik ez dela, eta «eskakeatzerik» ez dagoela. Etikoki, zenbait momentutan ezetz esaten jakin behar da, alarmaren botoia sakatu eta «egituren trenetik» jeisten jakin behar da. Kuestio hau muturreko adibide batekin ilustratzen du Berger-ek, hain zuzen ere heriotz zigorraren adibidearekin (193-194. or.), baina horren muturrekoak ez diren beste adibide askoren

⁸ Armada batean soldadutza egiten egon den edonork (eta hor egon ez diren askok, jakina, honetaz ohartzeko ez baita beharrezkoa erakunde horretatik pasatzea) ederki asko daki zer den sarjento edo kabo «txuskeroa». Egun batek bestera kabo izatera pasatzen diren zenbait soldaduren kasuak interesgarrietakoak izan daitezke soziologiaren ikuspuntutik zeren eta, bapatean jortu daten botereaz (edo botere ilusioaz, zehazkiago esateko) liluraturik eta itsuturik, txuskerismoaren bertsiorik gogorrena erreproduzitzen baitute, eskrupulurik gabeko —eta estilo gutxi— zapaltzailerik gogorrenak bihurtuz.

bitartez ere adieraz liteke. Heriotz zigorra ematen duen epailea, sententzia betetzen duen funtzionaria, exekuzioa bertan behera uzteari uko egiten dion agintaria, denak gezurretan ari direla dio Berger-ek, egia bakarrahaxe baita: epaileak dimititu dezakeela, funtzionariak agindua betetzeari uko egin diezaiokeela, eta agintaria gizakortasunaren alde jar daitekeela, baita legearen kontra bada ere. Ikuspuntu etiko gizazale batetik pertsona guzti hauek *erantzuleak* dira, eta kasu honetan beren rolak eta egitura sozialean dituzten posizioak ezin erabil ditzakete beren koldarkeria eta ankerkeriaren estalgarri edo koartada bezala.

«Soziologoak ulertuko du gizarte egitura guztiak konbentzioak direla, fikzioez eta iruzurrez nahasiak. Aitortuko du konbentzio horietako batzu baliozkoak direla, eta ez du haiek aldatzeko gogo handirik izanen. Baina zerbait esan beharko du konbentzio horiek hiltzeko lanabes bihurtzen direnean». (195. or.)

Beraz jarrera gizazalea duen soziologoak (edo pertsonak) eszeptikotasunez eta halako desenkantamendu pittin batekin ikusiko ditu gizartean sutuki eta erabateko ziurtasunez egiten diren kontzeptu berezketak edo jartzen diren «etiketak» (gizaki batzuk ilunpetara eta beste batzuk argitara egotzen dituztenak), bai *statu quo*-aren ordezkariaren aldetik eta baita mitor betetako iraultza utopikoa gehiegizko gogoberotasunez defenditzen dutenen aldetik ere.

Gizarte fenomenoaren ulermen teoriko eta zientifikoa lortzeko berez justifikatzen du soziologia, hau da, zientzigintzatik bertatik atera gabe gizarte zientziak ez du justifikazio gehiagoren beharrik. Dena den, eremu horretatik kanpora atereaz (bizitza honetan zientzigintza ez baita gizakiaren aktibitate garrantzitsu bakarra!), arestian aipaturako gizazaletasunak indartzen du soziologiaren justifikazioa (gizazaletasunean sinesten dutenentzat, jakina, txuskeroei ziurrenik beste justifikazio bat aurkituko baitute).

«Txontxongiloek ez bezala, guk badugu ahalmena geldirik geratzeko, gora begiratzeko eta ohartu egiteko zein makinariak ibil erazten gaituen. Horixe da askatasun bideko lehenbiziko urratsa. Eta horrexetan aurkitzen dugu soziologiaren justifikazioa disziplina humanistiko bezala» (213. or.)

Goian aipatutako eszeptizismo ironikoa izaera gizazale edo humanistikoaren erakusgarririk hoberenetakoa izango litzateke. Ez dugu politika mundua, estratifikazio-sistema bat edo, orohar, errealitate soziala erabat

ulertuko, ez bagara jabetzen hein batean behintzat dena adar jotze eta engainua dela, maskara dantza bat alegia (200. or).

«Norberak gizartea komedia gisa ikusten badu, ez du tranpak egiteko ikaran ibili behar, batez ere halakoak eginaz han-hemenka oinazea piska bat arindu edota bizia alaixeagoa egiten ahal badu. Kontua da, azken batean, joko arauak sobera zinetan ez hartzea, non eta arau horiek ez dituzten gizakiak berak babesten, eta benetako gizabaloreak sustatzen. Makia-belismo soziologikoa, beraz, oportunitate zinikoaren aurka-aurkakoa. Hain zuzen, ekintza sozialean askatasuna gauzatzeko bidea». (197. or.)

Giza duintasunari eusteko eta «txuskeroa» ez izateko Berger-ek egiten dituen gomendio hauek zientzizigintzarekin zerikusirik ez dutela pentsa lezake bakarren batek. Gainera atal honen hasieran zientzizigintzaren esparrua utzi eta balioei buruzko eztabaidan murgilduko-ginela esan dugu. Dena den, zientzi sozialak badu berezitasun bitxi eta paradoxikoa: soziologia bera (natur zientziak bezalaxe) aktibitate soziala dela (hau da, zientzi ezagutza sozialki produzitzen eta ebaluatzen dela), eta ondorioz soziologiari buruzko soziologia egin daitekeela: Kuestio haueztaz, jakina, zientziaren soziologia arduratzen da. Berger zientziaren soziologiaren (soziologiaren soziologiaren kasu honetan) baliatzen da egungo soziologiaren zenbait ezaugarri kritikatzeko, hala nola hertsiki mugaturiko gai bati buruzko funtsik gabeko ikerketa enpirikoak, historia eta filosofiar buruzko jakin eza, gehiegizko espezializazioa, ikerketa teknika hutsarekiko obsesioa, metodologiarekiko gehiegizko interesa, gehiegizko terminologizaletasuna, etab. (ikus 24. or.tik aurrera). Ezaugarri hauek zientzia sozialaren legitimazio kontestu baten barruan, hots, onespren soziala (eta seriotasun eta errespetagarritasun itxura) iortzeko disziplina hauek egin behar izaten dituzten ahaleginen barruan ulertu behar dira. Eta jakina, guzti-honek badu azpian alderdi materialago bat: gizarte zientzira-ko laguntza ekonomikoak (ikerketak egiteko, ikasketak ezartzeko, edota unibertsitateko departamentuak eta institutuak sortzeko) onespren sozial horren menpean egoten dira. Ironiko samarra gertatzen da, bestalde, Thomas Kuhn-en (1962) lanaz geroztik natur zientzien metodologian eta filosofian jarrera antipositibistak nagusitzen ari diren honetan, zientzi sozialek positibismo epistemologikorik estuenari eutsi nahi izatea.

Soziologiaren berezitasun honek (soziologiaren soziologia egin hala izateak alegia) ondorio kaltegarriak ekar diezazkioke-liburuan zehar momentu askotan Berger-ek defenditzen duen tesi-bati, hain zuzen ere zien-

tzitasunaren eremuaren eta baloreen eremuaren arteko erabateko berezketaren defentsari (berezketa hau ez da guztiz zehatza, lehen esan dudana bezala, zeren eta zientzitasuna bera ere balore-sistema edo *ethos* bat baita, objektibotasuna eta unibertsaltasuna bezalako betebeharretaz osatutakoa). Zientzizigintza instituzio soziala edo, Berger-ek berak horrenbeste maite duen terminua erabiliz, eraikuntza soziala izanik, errealtate sozialean aurkitu ohi ditugun fenomeno guztiak (kontrol soziala, estratifikazio mota ezberdinak, erretorika, taktizismoa, botere eta interesen arteko borroka latza, legitimazio prozesuak, engainuak, iruzurrak, irainen erabilera sistematikoa, etab.) zientzizigintzan bertan ere aurki daitezke, eta hori dena «objektibotasuna» eta «jakintza unibertsala» bezalako ideal ustez garbi eta gardenen izenean. Bere azpidisziplina ezagutzaren soziologia izanik, Berger ederki asko jabetzen da honetaz.

«Unibertsitateko elkarren kontrako lehia gaiztoa sarritan negozio mundukoa baino basatiagoa da ... Batek hamar urte-pasatu baditu unibertsitate eskola deusez batetik fakultate on batera joan ahal izateko, edo beste hamar urte egin baditu katedradun izateko ahaleginetan, seguraski soziologiaren bultzada humanistikoa ongi zapuztua geratu izanen zaio: ugazaba ez-unibertsitarien menpean bezainbestean bai behintzat. Orduan norbera ahaleginduko da toki egokietan argitaratzeko moduko gauzak idazten; saiaturko da ezagutzen bizi akademikoan gora egiten laguntzen ahal dioten agintari jendeak; bete-bete eginen ditu curriculum vitaeko hutsuneak (porentziak, kongresuak, «merezimenduak» ...), exekutibo gazte gora-nahi batek eginen-lukeen bezalaxe; eta hondarrean, gorrotatu eginen ditu ixilean bere lankide eta ikasleak, gartzelakide balitu bezalako indarrez. Horra non geratzen diren unibertsitate itxurak». (208. or.)

Zientzitasunaren idealen (zientzilarien *ethos*-aren) eta benetako praktika zientifikoaren arteko aldeak eta tentsioak erakusten dizkigu aipu honek. Baina zientzi ezagutza honelaxe produzitzen (eraikitzen) da, zientzilarien mundu sozialean (mundu hau kanpoko mundu sozial zabalagoarekiko erlazioan dagoelarik jakina), tentsio horien erdi-erdian, eta beraz nahitaez horrekin bizitzen ikasi beharko du soziologoak, ez baitago ihes egiterik. Horregatik, ikusmolde gizazalerako gomendioa ongi etorriko zaio soziologo berari ere, zientzizigintza barruko-tentsio horiei *duintasunez* aurre egin diezazkien. Duintasunaren ikuspuntutik, gauza bat argi dago: erakunde akademiko batean bere interes eta botere nahi pertsonal huts-hutsak zientzitasunaren idealekin estaliko lituzkeen soziologo «txuskeroa» baino gauza ezatseginagorik —eta aldi berean komikoagorik— oso nekez aurkitu litekeela mundu honetan.

5. Ondorio gisa: gizarte zientzia, baloreak eta zientziaren soziologia

Gizarte zientziaren eta balioen arteko erlazioen gai zabalaren barruan kokatzen diren (eta aurreko atalean aipatu ditudan) bi punturi heldu nahi nieke ondorio gisako azken atal honetan. Lehenengoa zientzi arrazoizkotasunaren eta gizarte arrazoizkotasunaren arteko erlazioena da. Bigarrena, gizarte zientziaren eta balioen arteko auziak Berger-en argumentuei (batez ere gizarte zientzien zientzitasunari buruzko argumentuei) egin liezaiekeen kaltea.

Lehenengo kuestioari buruz hauxe esan nahi nuke, sarritan defentsarik onena (kasu honetan gizarte zientziaren defentsaz ari naiz, jakina) eraso bat izan daitekeela. Zientzi arrazoizkotasunaren eta gizarte arrazoizkotasunaren arteko erlazioen gaia planteiatzeko modu klasikoaren lehenengo urratsa, aurreko atalean esan dudán bezala, bi arrazoizkotasun edo arrazionalitate moeta horien arteko berezketa zorrotza onartzea izaten da. Ondoren, bigarren urrats bat eman ohi da, bi azpiurrats dituena: batetik, (natur) zientziaren arrazoizkotasuna goraiapatzea eta, bestetik, balioen eta, orohar, mundu sozialaren arrazoizkotasuna zalantzan jartzea (instituzio, kultura, jokamolde, errepresentazio, ideia, ezagutza-molde eta balioen erlatibotasuna dela eta). Auzi-honen aurrean gizarte zientziatik etorri diren erantzunek, Frankfurtoko Eskolako J. Habermas-enak kasu (HABERMAS, 1968a; 1968b), neurri on batean behintzat, aipatu berezketa areagotzen lagundu dutela esan daiteke. Giza espeziearen auto-produkzioan bi esparru berezten ditu alemaniar egile honek, produkzioa (ekintza instrumentala, arrazoizkotasun teknikoaren esparrua) eta inter-subjektibitatea (ekintza komunikatiboa, arrazoizkotasun sozialaren esparrua). Natur zientziek naturaren kontrol eta manipulazio teknikoaren esparruan hartzen dute beren zentzua, horixe da beren baliagarritasun kontestua. Gizarte zientzien objektua, aldiz, subjektu arteko komunikazioaren eta interakzioaren esparrua da, esparru horri zentzua emango liokeen interes gidaria («transzendentala», egile honen terminua erabiliz) komunikazio edo intersubjektibitate horri eustea izango litzatekeelarik, subjektuen arteko ulergarritasuna eta konsensua lortzea eta ziurtatzea alegia. Praktikaren eta intersubjektibitatearen esparruaren arrazoizkotasuna errekuperatu nahi du Habermas-en teoria kritikoak, baina hori egiteagatik ordaindu behar duen prezioa —esparru horren eta arrazoizkotasun tekniko edo instrumentalaren esparruaren arteko berezketa zorrotza onartzea alegia— gehiegizkoa da nere ustez.

Egungo zientziaren soziologiako zenbait egilek (BARNES, 1977) egindako proposamanean jarraituz, Habermas-en berezketari bi kritika egin dakizkioke. Batetik, natur zientzietan ezezik, gizarte zientzietan ere interes instrumentalak daudela. Baina, bestetik, (eta hauxe da arestian aipatzen genuen «eraso» mugimendua) natur zientzia eta teknologia ez daudela mundu sozialetik kanpo. Produkzio sozialak izanik, beraiek ere hartzen dute beren zentzua subjektu arteko interakzioaren eta komunikazioaren (hitz hauen adiera mikrosoziologiko zein makrosoziologikoan) baliagarritasun esparruan.

«... All knowledge is socially sustained, a set of agreed conventions, as well as being instrumental in character... Knowledge generally is primarily instrumental, in the sense that it is generated and evaluated in a way that is pre-organised by an interest in prediction and control, and normative, in the sense that it is sustained by a communal consensus which is decided, and not a rational necessity». (BARNES, 1977, 18-19.or.)

Azken hogeitau urte hauetan zientziaren soziologia berriak (edo *ezagutza zientifikokoaren soziologia*, batzuek nahiago duten izena erabiliz) aurrerapen haundia izan du⁹. Ikerketa hauek erakutsi dute bai zientzi ezagutzaren aurrerapenak askotan eztabaida edo kontrobertsia haundiko giroetan sortzen direla (ikus COLLINS, 1985; LATOUR, 1987; STAR, 1988). Ez da hau adibideak ematen hasteko lekua (luze joko luke eta) baina, esate baterako, zientzi arlo edo azpiarlo berrien sorrera garaietan eztabaidaz betetako kontsentsu-formazio prozesuak dokumentatu eta aztertu dira (konexionismo izena duen adimen artifizialeko zientzi paradigmaten sorrerari buruzko azterketa soziologikorako, ikus OLAZARAN, 1993a; 1993b). Eta ez da ahaztu behar, bestalde, askotan aldaketa zientifikoa diferentziazio prozesuen bidez gertatu ohi dela, hau da, maiz ekarpen edo aurrerapen baten onespina azpiarlo baten onespenearekin (edo, beranduxeago, instituzionalizazioarekin) batera etorri ohi dela. Gaur egun, gero eta disziplinartekotasun haundiagoa dagoe-larik, zientzi aldaketa horrelako espezializazio prozesuen bidez gauzatzen da askotan. Prozesu horietan eztabaida gogorrek eta latzak gogorren dira interpretazio ezberdinei eusten dieten zientzilarri taldeen artean.

Zientzi eztabaidei buruzko azterketa soziologikoek hiru pausotako metodologi taktika erabili dute (WOOLGAR, 1991). Lehenik, zientzi episo-

⁹ Ekarpn emblematico gutxi batzuk aipatzeagatik, ikus, besteak beste: BLOOR (1976); BARNES eta EDGE (1982); KNORR-CETINA (1984); KNORR-CETINA eta MULKAY (1983); LATOUR eta WOOLGAR (1979); COLLINS (1985); LATOUR (1987); eta PICKERING (1992).

dio baten deskribapen «ofiziala» aukeratzen da, urteen poderioz zientzīgintza arlo batean nagusitu den deskribapena alegia. Bigarrenik, gauzak beste era batera gerta zitekeela erakusten da, hau da, eztabaida hori «itxi» baino lehen interpretazio bat baino gehiago zeudela, hots, interpretazio «ofiziala» (geroago nagusituko zena) ez zela interpretazio bakarra. Hirugarrenik eta azkenik, kontsentsua eratzeko prozesu sozialak, zientzilarien komunitate barrukoak zein kanpokoak, «birreraki» egiten dira. Azterketa soziologikoei erakutsi dute kontsentsu eratze prozesu hauek ez direla zientzi lorpenen metatze prozesu hutsak, interes (teorikoak, praktikoak, disziplinakoak, etab.) ezberdinak dituzten (eta gizarteko erakunde eta interes talde nagusiekin lotura ezberdinak dituzten) zientzilari taldeen arteko erretorika, taktika eta —neurri batean behintzat— botere-gatazka prozesuak baizik. Prozesu hauetan Harry Collins soziologo britaindarrak «interpretazio malgutasuna» (*interpretative flexibility*) deitu zuena ikusten dugu, hau da, eztabaida batean partehartzen ari diren zientzi taldeek interpretazio ezberdinak egiten dituztela datu, esperimendu edo emaitza zientifiko *berberei* buruz. Gauzak honela, eztabaida baten amaiera ez da, zientziaren soziologo berrientzat, interpretazio baten nagusitasun edo arrazoizkotasun zientifiko edo teknikoaren ondorioa, alderantziz baizik: nagusitasun hori eztabaida prozesuaren emaitza da, horixe baita prozesu horretan *erabakitzen* ari dena.

Honaino azken atal honetan aztertu nahi nuen lehenengo kuestioa. Nik uste dut argi gelditu dela zientzi arrazoizkotasunaren eta gizarte arrazoizkotasunaren arteko erlazioen gaian defentsa taktikak kaltegarriak izan daitezkeela gizarte zientziarentzat. Natur zientzien, teknologiaren eta, orohar, teknokraziaren «erasoen» kontra (nolabait esateko), zientzi sozialaren eremua hesiz eta trintxeraz inguratzea ez da soluziobiderik onena. Atal honetan (laburki bada ere) defendatu den ikuspuntia hauxe da, askoz ere emankorragoa eta interesgariagoa dela zientzīgintzaren *izaera soziala* (zientzi ezagutzaren produkzio eta ebaluazio *prozesu sozialak*) aztertzea. Baina guzti honek arazo berri batera garamatza, atal honetan aztertu nahi nukkeen bigarren arazora hain zuzen: Aurreko atalean zientziaren *ethos* edo balio-sistemaren eta zientzilarien benetako praktikaren artean dagoen tentsioa edo aldea aipatu da, eta Berger tentsio horretaz ohartua dela erakutsi dugu. Kuestio-hau beste era batera formula daiteke: zientziaren soziologia onartzen badugu, ezin uka genezake soziologiaren soziologia egiteko posibilitatea. Oraingoan, eta artikulu hau bukatzeko, honako galdera honi erantzun nahi nioke: guzti honek ezereztatzen al ditu soziologiaren zientzitasun-nahiak? Non gelditzen da objektibotasu-

nean edo esplikazio eredu kausalean Berger-ek *Gonbitean* jartzen duen indarra?

Galdera horri erantzuteko zeharbide bat hartuko dut, zientziaren soziologiaren bilakabideari begirada laburra emanez, hain zuzen ere esku-tartean daukagun arazo arlo horretan bertan planteiatu zelako lehenengo aldiz eta modurik gogorrenean (honetaz ikus: OLAZARAN, 1994a; eta OLAZARAN eta TORRES, 1994b). Arazoa zientziaren soziologia funtzionalistaren kritikarekin eta zientziaren soziologia berriaren sorrerarekin etorri zen, 1970 urteen hamarkadaren hasieran. Ordurarte, Robert K. Merton-en gidaritzapean, zientziaren soziologoek ikerketa objektuak zientzi erakunde eta organizazioak izaten ziren, profesio irizpideekin definitutako zientzilarien komunitateak alegia. Gizarte instituzioa den aldetik aztertu zuten zientzīgintza funtzionalistek, beren analisietan kontrol sozialeko mekanismoak, arauak, autoritatea, estratifikazioa, onespina, legitimazioa, baliok, kooperazioa, sozializazioa, lehiaketa, diferentziazioa, espezializazioa eta antzeko soziologi kontzeptuetaz baliatu zirelarik.

Ezpairik gabe, funtzionalistek ekarpen haundiak egin zituzten, bai teorikoak eta bai enpirikoak. Hala ere, kritika negatibo gisa, erlazonaturik dauden bi kuestio aipatu beharko genituzke. Batetik, zientzilarien jokabidearen esplikazioan, balioei gehiegizko garrantzia eman zieten (ikus MERTON-en [1942] artikulu ospetsua). Bestetik, *zientzilarien soziologian* gelditu zirela, *zientzi ezagutzaren soziologiara* iritsi gabe, hau da, zientzilarien aktibitatea soziala dela onartu zuten arren, aktibitate horren produktua (zientzi ezagutza) asozializat jo-zutela. Ezagutzaren soziologiaren aldetik, jarrera hori atzerakoa gerta daiteke: soziologiak erroreak edo distortsioak esplikatzeko balioko luke, baina ez «egiazko» ezagutza. 1970 urteen hamarkadan, 1960 urteetan zientziaren historian eta filosofian egindako zenbait lanetaz baliatuz (batez ere Thomas S. KUHN-en [1962] lanaz), Europako (batik bat Britaina Handiko) zientziaren soziologo batzuk Merton eta bere jarraitzaileen lana kritikatzeko hasi ziren, geroztik «zientziaren soziologia berria» izena hartu duen, eta arestian atal honetan bertan laburki deskribatu dudana ikerketa arloa sortuz. Bestela esateko: ikerlari hauek zientzi ezagutzaren gizarte eraikuntz izaera (Berger-i horrenbeste gustatzen zaion terminua erabiliz) frogatzeari ekin zitoten.

Baina, zientziaren-soziologia berriaren-bidearen erdia (edo gutxiago) besterik ibili ez dugun honetan, disziplina horren «maniobra errealistak» salatzen hasiak dira beren burua «erradikalizat» jotzen duten zenbait so-

ziologo «postmoderno» (ikus adibidez: WOOLGAR, 1991, 24. or.). Hauen ustez, lehenago zientzi eztabaidetaz mintzatzean aipatu dugun hiru pausotako metodologi taktika ez litzateke behar bezain erradikala izango, zeren eta zientziaren soziologoak interpretazio bat defenditzen baitu (bere interpretazio soziologikoa alegia), beste interpretazio batzuk (adibidez gertaera edo episodio horri buruzko interpretazio «ofizialak», edota eztabaida itxi baino lehen lehian zeuden beste interpretazioak) baztertu. Erreflexiboak izateko eta soziologiak berak sortutako interpretazioen nagusitasuna ez onartzeko gonbitea egiten digu Woolgar-ek.

«[The] sociology of scientific knowledge constitutes its own hardness by way of a rhetorical contrast between the work of the analyst and the work of the scientists being studied; between the representational activities of the sociologist and those of his or her scientist-subjects. Whereas the latter are presented as amenable to relativism, the potential application of relativism to the former is played down. This rhetorical contrast amounts to a claim that different classes of representational activity are differentially susceptible to relativism» (WOOLGAR, 1991, 27. or.)

Merton eta bere jarraitzaileen soziologia funtzionalista kritikatu eta ezagutza zientifikoaren soziologiari ekin zionean, zientziaren soziologia berriak aurrerapauso nabarmena eman zuen, Woolgar-en ustez, hain zuzen ere kasurik zailena («erradikalena») hartu zuelako ikerketarako objektu gisa. Gaur egun, zientziaren analisia utzi gabe, zientziaren soziologo batzuk teknologiarren eremua ere aztertzen hasiak diren honetan, Woolgar-ek ez du aukera galdu zientzigintzatik teknologigintzarako mugimendu hori atzerakoia dela esateko, eta benetako erronka erreflexibitatearena dela aldarrikatzeko, zeren eta, beti ere egile honen ustez, teknologiarren azterketa soziologikoan berriz ere zientziaren azterketa soziologikoan egin diren akats berberak errepikatzen ari baitira.

«... The reflexive version of technology as text suggest that all versions (descriptions, accounts) of technology be granted no greater authority than any other outcome of textual production and interpretation. This includes our own texts [descriptions, accounts], in which we as analysts conventionally privilege our own status vis-à-vis the relativized status of the texts of the others». (WOOLGAR, 41. or.)

Ezagutzaren soziologiaren eta, orohar, soziologia ororen printzipiorik funtsezkoenetakoa den erlatibotasuna (jokamoldeena, egiturena, kulturena, interpretazioena, balioena, etab.; ikus artikulua honen bigarren atalean

kontzientzia soziologikoaren dimentsioetaz Berger-ek berak esandakoa) muturrera eramanez, diskurtsoaren eta errepresentazioaren ohizko eta funtsezko mekanismoak (hala nola, baliagarritasun nahia, arrazoizko argumentazioaren posibilitatea, ikuspuntu ezberdinen arteko komunikaziorunzko pausoak ematea, etab.) problematizatzeraz ezezik, abandonatzeraz ere gonbidatzen gaitu Woolgar-ek.

Baina, nere ustetan, Woolgar-en proposamenak *hara-kiri*-ra garamatza, gizarte zientziaren deuseztapenera alegia. Proposamen hauek onartezinak eta bideraezinak direla frogatzeko aski da, adibidez, lehenago atal honetan bertan aztertu dugun zientzi eztabaiden kasuei begiradaxo bat ematea. Demagun zientziaren soziologo batek iadanik bukatu dagoen zientzi eztabaida bat aztertzen hasten dela eta, lanean hasi eta berehala, eztabaida horren eboluzioari buruzko interpretazio nagusia (gertaera horiei buruzko bertsio ofiziala) aurkitu duela. Baina suposa dezagun lan empiriko handia egin ondoren (hiru edo lau urtetako doktoradutza tesi bati dagokion ikerketa lan mardula, agian) gure soziologoak gertaera horiek birreikitzea lortzen duela, honako hau erakutsiz: eztabaida bukaeran nagusitu zen interpretazioa (bertsio ofiziala) lehian zeuden interpretazioen artean bat baino ez zela, eta gainera eztabaida itxi baino lehen ez zegoela batera garbi zein interpretazio nagusituko zen, interpretazio ezberdinen artean pisu handiko zientzilari taldeak zeudelarik. Azkenik, adibide honekin bukatzeko, pentsa dezagun soziologoak ondoko hau frogatzen duela: nagusitu zen interpretazioa, hein on batean, eztabaida itxi eta kontsentsua eratzearekin batera gauzatu zen antolaketa soziala (botere, baliapide edo prestigio banaketa) legitimatzeko asmatutako bertsioa zela, *beste kausa edo arrazoi batzuegatik* itxitako eztabaidaren emaitza justifikatzea helburu zuen bertsioa alegia.

Woolgar-ek egiten duen proposamena jarraituko bagenu, adibide honetan agertzen diren interpretazio guztiek (eztabaida itxi baino lehen borrokan zeudenak, eztabaida istearekin batera nagusitu zena eta lanean lau urtez egon eta gero soziologoak eraiki duen interpretazioa) balio berbera izango lukete. Baina nekez egon liteke ados horrelako baieztapen-batekin. Gizarte zientzigintzaren barruan, zientzigintza mota ororen barruan bezalaxe, interpretazio guztiek ez dute balio berbera izaten. Indar teoriko eta empirikoa dira balio-hori neurtzeko irizpideak. Jakina, balio horretaz eta irizpide horien aplikazioaz eztabaida franko egon daiteke (eta egoten dira!) zientzilarien komunitatean, eta baita denbora luzez irauten duten ezadostasunak sortu ere. Are gehiago, ezagutzariko berean teori eta metodologi tresna ezberdinak defendatzen dituzten zientzilari taldeak daude-

nean, bukaezinak diruditen eztabaidak eta ezadostasunak sor daitezke eta, askotan, sortu egiten dira. Hain guztia dela eta, nekez esango du zientzilari batek —eta are gutxiago Duhem, Quine, Wittgenstein, Hanson, Goodman edo Kuhn bezalako egileen, edota gaur egungo zientziaren soziologoaren lanak ezagutzen baditu— berak egin dituen ekarpenak (gertara edo datu batzuei buruzko interpretazioa kasu) betirakoak, aldazkinak edo errebisazkinak direnik.

Baina zientzi ezagutzaren erlatibotasuna, kontingentzi eta eraikuntza izaera, eta errebisagarritasuna onartzeak ez dakar berarekin Wolgar-en *edozer gauzak balio du* printzipioaren onarpena. Aldaketa haundiak (adibidez, zientzi arlo baten berregituraketa edo arlo, azpiarlo edo paradigma berri baten sorrera) ez dira egun batetik bestera gertatzen. Neronek aztertu nuen kasuan (OLAZARAN, 1993a, 1993b), adimen artifizialeko paradigma konexionistaren kontrako kontsentsu-eratzeko prozesua gauzatzeko hamar urte behar izan zirela (gutxigorabehera 1955etik 1965era) eta kontsentsu hori eta berarekin gauzatu zen botere mapa errebisatzeko prozesuak hogeitau urte baino gehiago iraun zuela (1965etik 1988ra hain zuzen) erakusten da. Bidean aldaketaren aldeko interpretazio, teoria, ekarpen, baliapide eta proposamen asko gelditu ziren, horietako batzuk, «desbideraketak» zirelakoan, ilunpetara kondenatuak izan zirelarik. Beraz, zientzigintzan, gizarteko beste eremuetan bezala, interpretazio baten nagusitze prozesua, edota egitura batzuen berrantolakuntza prozesua, ez dira txantxetako gauzak, horretarako behar diren baliapideak (zientifikoak, teknikoak, ekonomikoak, instituzionalak, prestigio eta sinesgarritasunekoak, era guztietako aliatuak, denbora, etab) oso haundiak izaten direlarik. «Beste edozein interpretazio» horrelako metatze prozesu batean sortutako interpretazio batek adina baliagarritasunik, garrantzirik, pisurik edo eraginkortasunik duela esatea txorakeria hutsa da, gizarte egiturek gizaki baten ekintza baldintzatzen ez dutela baieztatzearen parekoa. Galdetu, bada, bestela, (aipatutako kasuarekin segituz) geroago (demagun, hogeita hamar urte beranduago) nagusituko zen interpretazio bati eusteagatik prestigioa eta ikerketarako baliapideak galdu zituen zientzilari bati ea garai hartan interpretazio guztiek balio berbera zuten (kasu hau, paradoxikoa izanagatik ere, benetan gertatutakoa da nik aztertutako kontsentsu-eratzeko prozesuetan, eta gainera zientziaren historiak eta soziologiak horrelakoak uste baino maizago gertatu direla erakutsi dute).

Bestalde, maila orokorrago batean, hauxe esan daiteke Woolgar-en proposamenaren kontra: Berger-ek eta Luckman-ek (1966) erakutsi zuten

bezala argumentu edo interpretazioen produkzioan eta balidazioan erabiltzen diren legitimazio mekanismoek ezagutzaren eta errealtatearen eraikuntza izaera estaltzeko joera baldin badute ere, honek ez duela inola ere esan nahi baliagarritasun nahia duen errepresentazio edo diskurtsoarekiko alternatibarik dagoenik (ixiltzea, irrazionalitatea edo geure buruaz beste egitea kenduta, noski). Woolgar-ek berak ere, erreflexibitateari ekiteko gonbitea luzatzen digunean, aktibitate horren baliagarritasunaz eta eraginkortasunaz konbentzitu nahi gaitu, horretarako erabili ohi diren mekanismoak (hala nola, argumentuak, pertsuasio eta erretorika taktikak, etab.) erabiliz.

Honetan, beste puntu askotan bezala, *Soziologiarako Gonbitean* Berger-ek mantentzen duen posizioaren gaurkotasunak bere horretan dirau. Mundu sozialaren erlatibotasuna, batetik, eta ekintza sozialean subjektuaren kognizio-orientazioek duten garrantzia, bestetik, onartu behar badira ere, fenomeno eta prozesu sozialak interpretatzean kausetan oinarritutako esplikazioak bilatu behar ditu soziologoak (ikus artikulu honen hirugarren atala). Bestalde, epistemologiako arazo eta kuestioen garrantzia ukazina den arren, *zientzia* —batetik— eta *zientziaren epistemologia* —bestetik— bi maila ezberdinetan daudela azpimarratu behar da, eta beraz ez dira nahasi behar. Jakina, epistemologiako eztabaidek eragin handia izan dezakete berrikuntza zientifikoan (teori edo metodologi berrikuntzetan), baina honek ez du esan nahi bi maila horietako kuestioak maila bakar batera bildu behar direnik. Artikuluaren azken atal honetan zientziaren epistemologia (zientziaren soziologia barne) eta esplikazio kausalean oinarritutako zientzia soziala kontrajarrita ez daudela erakusten saiatu naiz. Berger-en terminuaz baliatuz, ezagutza oro (zientzi ezagutza barne) eraikuntza soziala (eta beraz erlatiboa) dela defendatu dut hemen. Baina, kuestio epistemologiko hori oso garrantzitsua baldin bada ere, horregatik ez da gelditzen etengabe esplikazio bila ari den zientzi aktibitate (ikus al duzu zeuk behin ere benetako zientzilari bat, edozein disziplinatakoa delarik ere, geldirik?)

BIBLIOGRAFIA

- APALATEGI, J. (1989): *Soziologia orokorra*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
 BARNES, B. (1977): *Interests and the Growth of Knowledge*. London: Routledge and Kegan Paul.
 BARNES, B. eta EDGE, D. (1982): *Science in Context: Readings in the Sociology of Science*. Milton Keynes, England: The Open University Press.

- BELTRÁN, M. (1979): *Ciencia y sociología*. Madrid: CIS, bigarren edizioa 1988.ean.
- BERGER, P. ([1963]1992): *Soziologiarako gonbitea. Ikusmolde humanistiko bat*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua; itzultzailea: Julian Maia.
- BERGER, P. eta LUCKMANN, T. (1966): *La construcción social de la realidad*. Buenos Aires: Amorortu.
- BLOOR, D. (1976): *Knowledge and Social Imagery*. London: Routledge & Kegan Paul Ltd.
- COLLINS, H.M. (1985): *Changing Order: Replication and Induction in Scientific Practice*. London: SAGE Publications Ltd.
- ENGELS, F. (1975): *Sozialismoaren aurrerabidea utopiatik zientziara eta Ludwig Feuerbach eta aleman filsofia klasikoaren amaiera*. Hendaia: Mugalde, 1975, ez da esaten itzultzailea nor den.
- HABERMAS, J. (1968a): *Conocimiento e interés*. Madrid: Taurus, 1982.
- HABERMAS, J. (1968b): *Ciencia y técnica como ideología*. Madrid: Tecnos, 1984.
- HORTON, P.B. eta HUNT, C.L. (laister argitaratzeko): *Soziologia*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua.
- IZTUETA, P. eta APALATEGI, J. (1974): *Marxismo eta nazional arazoa Euskal Herrian*. Baiona: Zabal.
- KNORR-CETINA, K. (1981): *The Manufacture of Knowledge*. Oxford, UK: Pergamon Press.
- KNORR-CETINA, K.D. eta MULKAY, M. (1983): *Science Observed: Perspectives on the Social Study of Science*. London: Sage publications Ltd.
- KÜHN, T.S. (1962): *La estructura de las revoluciones científicas*. Madrid: Fondo de Cultura Económica, 1975 (euskarazko itzulpena badago).
- LAMO DE ESPINOSA, E. (1975): *Juicios de valor y ciencia social. Sobre los juicios de valor en las ciencias sociales: una crítica interna del avalorismo*. Valencia: Fernando Torres.
- LATOUR, B. (1987): *Science in Action: How to Follow Scientists and Engineers throughout Society*. Milton Keynes, England: Open University Press.
- LATOUR, B. eta WOOLGAR, S. (1979): *Laboratory Life. The Social Construction of Scientific Facts*. London: Sage.
- MARX, K. (1973): *Louis Bonaparteren «Brumaire»aren hemezortzia*. Donostia: Lur, Mario Onaindiak euskaratua.
- MARX, K. eta ENGELS, F. (1980): *Alderdi Komunistaren Manifestua*. Donostia: Lur, Xabier Kintanak euskaratua.
- MERTON, R.K. (1945): Los imperativos institucionales de la ciencia. In B. BARNES (Ed.): *Estudios sobre sociología de la ciencia* (pp. 64-78). Madrid: Alianza.
- OLAZARAN, M. (1993a): Controversias y emergencia del conexionismo: una perspectiva histórica y sociológica. *Revista Internacional de Sociología*, 4, 91-122.
- OLAZARAN, M. (1993b): «A sociological history of the neural network controversy». *Advances in Computers*, 37, 335-425 (Cambridge, Massachusetts, USA: Academic Press).

- OLAZARAN, M. (1994a): «De la sociología de la ciencia a la sociología de la tecnología: un horizonte abierto». In J.R. BLANCO, A. COTILLO, T. GONZÁLEZ DE LA FE, J.M. IRANZO eta C. TORRES (Ed.): *Sociología de la ciencia y la tecnología*. Madrid: Consejo Superior de Investigaciones Científicas (en prensa).
- OLAZARAN, M. eta TORRES, C. (1994b): *Para una reorientación de la sociología del conocimiento científico*. Aldizkari artikulua: (prentsan).
- PICKERING, A. (1992): *Science as Practice and Culture*. Chicago: Chicago University Press.
- SAGARNA, A. (1970): *Soziologiaren hastapenak*. Donostia: Lur.
- STAR, S.L. (1989): *Regions of the Mind: Brain Research and the Quest for Scientific Certainty*. Stanford, California: Stanford University Press.
- SUDUPE, J. (1984): *Karl Marx. Teoria eta Politika*. Bilbo: Euskaltzaindia eta Bizkaiko Aurtzki Kutxa.
- WEBER, M. (1981): *El político y el científico*. Madrid: Alianza (Weber-ek 1919.ean idatzitako lana).
- WOOLGAR, S. (1991): The turn to technology in social studies of science. *Science, Technology, Human Values*, 161, 20-50.